

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 2.ATALA

DATA: 2024/04/19

GUREAN

HAZIBERRI PROIEKTUA

Gure ikasleek basoan eta parkeetan dagoen bizitzaz asko dakite. Haziberri proiektua dela eta, zuhaixka txikiak landatzera joan dira Uliara LH3ko ikasleak. Landaketa hauek hirian zehar egiten dira eta lehendabiziko pausoa haziak biltzea eta ereitea izaten da. Gero, landatzea tokatzen da eta horretarako Uliara bisitatu dugu. Zergatik da garrantzitsua bertako zuhaitzen hazietatik ateratako zuhaitzak landatzea? Bertako klimara egokituak daudelako eta gaixotasunen aurrean hobeto erantzuten dutelako. Natura zaindu, naturaz gozatu!



GURE INGURUAN

LIBURUAREN EGUNA

NOIZ: Apirilak 23

Liburuaren Nazioarteko Eguna apirilaren 23an ospatu ohi da urtero mundu osoan, batez ere irakurketa sustatzeko, eta baita argitalpen-industria eta egile-eskubideen bidezko jabetza intelektualaren babesa ere.

Donostian, haur-irakurraldiak, hitzaldiak, elkarrizketak eta liburu-aurkezpenak antolatuko dira Gipuzkoa Plazan. Horretaz gain, urtero bezala, azoka egongo da.



MUNDUARI ITZULIA 80 EGUNETAN



ANTZERKIA

NOIZ ETA NON: apirilak 20 · 17:00
Okendo K.E. Gonbidapenarekin.

Passepartouri, Phileas Fogg-ekin Munduari itzulia 80 egunetan eman zueneko istorioa etorri zaio gogora, eta gure ikuslegoari kontatzeko beharra sartu zaio. Baina, nola kontatu? Zergatik ez zakar poltsak erabilia? Edo erratzak, zorugarbigailua, trapu, zakarrontzi edo eskura duen edozer gauza? Ez galdu aukera. Igo Passepartouren garbiketa orgara. Bidaia hastear dago eta. Adina: + 3 urte